

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nazioarteko mugikortasunerako unibertsitateko programetan parte hartzen duten ikasleentzako diru-laguntzen deialdia zabalik

Eskaerak aurkezteko epea datorren apirilaren 23an amaituko da

Osteguna, 2018.eko martxoak 22

Unibertsitateen eta Hezkuntza Baliabideen zuzendaritzak 2017-2018 ikasturtean nazioarteko mugikortasunerako unibertsitateko programetan parte hartzen duten ikasleentzako diru-laguntza gehigarriak eskatzeko epea zabaldu du. Ihaz Gradu eta Masterreko 400 ikaslek jaso zituzten laguntza horiek. Programa hauetan parte hartzen duten ikasle nafarrek datorren apirilaren 23a bitartean aurkeztu ditzakete eskaerak, www.navarra.es edota Hezkuntza Departamentuan webgunean.

Laguntzak eskatzeko aukera izango dute ikasle nafarrek, edo eskaera egin aurreko bi urteetan nafarroan errolatuta daudenek, eta 2017-2018 ikasturtean nazioarteko mugikortasuneko unibertsitateko programetan parte hartzen dutenek. Programa honek Erasmus+ deialdiarekin batera, ISEP (AEB), Martín de Rada (Asia), Palafox (Iberoamérica) eta bestelako hitzarmenak (Formación Solidaria, etab.) ere hartzen ditu bere baitan.

Hezkuntza departamentuak 230.000 euro bideratuko ditu, 210.000 euro graduko ikasleentzako izango dira eta 20.000 masterra burutzen ari diren ikasleentzako. Onuradun bakoitzari emandako zenbateko osoa 100 euroko modulua aplikatuz datorrena izanen da egonaldiko hilabete bakoitzeko, behar bezala frogaturik, eta gehienez ere bederatzita hilabeterako.

Bete beharreko baldintzak eta ezaugarriak [Nafarroako Aldizkari ofizialean](#) kontsulta daitezke.